

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

850

25/2022 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Tolosako Udalarekin Gorosabel eraikinean familia-bitartekaritzako zerbitzua emateko hitzarmena argitaratzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatutako hitzarmena sinatu duenez gero, zabalkunde egokia izan dezan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Tolosako Udalarekin Gorosabel eraikinean familia-bitartekaritzako zerbitzua emateko hitzarmenaren testua, zeina eranskin gisa agertzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 14a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2022ko otsailaren 18a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA
LEGEbiltzARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN
OTSAILAREN 14KO 25/2022 EBAZPENARENA



TOLOSAKO
UDALA

HITZARMENA, EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKOA, GOROSABEL ERAIKINEAN FAMILIA-BITARTEKARITZA ZERBITZUA EMATEKO

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 5a

BILDUTA

Alde batetik, Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua —28/2020 Dekretuaren bidez izendatua (irailaren 7koa, Lehendakariarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua izendatzeko dena)—, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa eta Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 26. artikulua nahiz Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkieten eskumenez baliatuz.

Bestetik, Olatz Peón Ormazabal andrea, Tolosako Udaleko alkatea, udal horretako ordezkari gisa. Udaleko idazkari M^a Begoña Garmendia Vázquez andrearekin bertaratu da, egintzaren fede eman dezan, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia betetze aldera.

Alde biek aitortzen diote elkarri egintza honetan parte hartzeko izaera eta ordezkaritza egokia, bai eta dokumentu hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa ere. Hartara, honako hau

AZALDU DUTE

LEHENENGOA.- Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legearen 1.2 artikulua araber, familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da, profesional batek edo batzuek aurrera eramaten dutena. Kualifikatuak, inpartzialak eta erabakitze ahalmenik gabeak dira profesional horiek, eta familia-gatazka duten aldeei laguntza eta jarraibideak ematen dizkiete gatazka amaitzeko beharrezkoa den elkarrizketa bidezko prozeduraren bitartez irtenbide onargarriak aurki ditzaten.

Familia-bitartekaritza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuan jasota dago, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan arautua (2.7.3.3 fitxa).

BIGARRENA.- Familia Bitartekaritzako otsailaren 8ko 1/2008 Legeak 3.1 artikuluan ezartzen duenez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bermatuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekin elkarlanean, eta bere eskumenen esparruan, familia-bitartekaritzako zerbitzu publiko integralak egongo direla eta herritar guztiek familia-bitartekaritzako zerbitzuak erabili ahal izango dituztela.

Beatriz Artolazabal Albeniz

2022ko otsailaren 18a, ostirala



Horrez gainera, 3. artikulua 2.a) apartatuak xedatzen du toki-erakundeek familia-bitartekaritza sustatuko dutela, arlo horretan eskudun den Eusko Jaurlaritzako sailarekin elkarlanean.

HIRUGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek Donostiako egoitzan ematen du familia-bitartekaritzako zerbitzua Gipuzkoan, eta, beraz, bertan artatzen dira Gipuzkoako lurralde historikoan bizi diren herritarren zerbitzu-eskaerak.

LAUGARRENA.- Familia-bitartekaritzako zerbitzua erabiltzen duten eta Tolosaldeko barruti judizialeko udalerrietan edo inguruko udalerrietan bizi diren pertsonen arreta hobetzeko eta errazteko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari eta Tolosako Udalarari interesatzen zaie zerbitzu horiek Tolosako Udalaren titulartasuneko udal-bulegoetan ematea.

BOSGARRENA.- Tolosako Udala da udalerririk horretako RONDILLA KALEKO 34B zenbakian (GOROSABEL ZAHARRA) dagoen finkaren titularra.

Lokal horrek Familia Bitartekaritzako Zerbitzua bertan emateko baldintzak betetzen ditu.

SEIGARRENA.- Administrazio Publikoen arteko lankidetzaren haien arteko harremanak arautzen dituen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.k) artikuluko printzipio orokorren mendean dago.

Horretarako, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100.1 artikuluan ezartzen da posible dela administrazio publikoek haien artean edo gainerako administrazioekin lankidetzaren hitzarmenak sinatzea, betiere lankidetzaren horren xedea bada kudeaketa publiko efizientea egitea eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzea.

Halaber, goian aipatutako legearen 100.2 artikuluan zehazten da lankidetzaren hitzarmenaren xedea honako hauetako bat izango dela: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko —propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak— behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.

Horrez gain, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 38.2.c) artikulua ezartzen du doako erabilera-baimenak lortzea haien beharra duen sail edo erakundearen ardura izango dela. Gauzak horrela, kasu honetan Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio.

Bestalde, Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamendua onartzen duen 1372/86 Errege Dekretuaren 77. artikulua ezartzen du ezinbestekoa izango dela lizentzia bat eskuratzea jabari publikoko ondasunen erabilera arrunt, berezi edo normala egiteko.

Horregatik guztiagatik, alde bietan dute lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko interesa, administrazio publikoaren arloan lankidetzaren arduratsua egiteko xedea baitu, posible izan dadin Eusko Jaurlaritzan gizarte-politiken eskumena duen sailak erabilera-baimena izan dezan goian aipatutako eraikinaren gainean, honako klausula hauekin bat etorrira:

2022ko otsailaren 18a, ostirala



KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren antolatzea, Tolosako udalerrian familia-bitartekaritzako zerbitzua eman dadin.

BIGARRENA.- IZAERA JURIDIKOA

1.- Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta, beraz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea izango ditu arau.

2.- Hitzarmenaren interpretazioan eta egikaritzean auzirik sortuz gero, aldean adostasunez ebatziko dira, bosgarren klausulan aurreikusitako batzordean. Hala ere, hitzarmenaren administrazio-izaera dela kausa, interpretazio eta aplikazioan desadostasunik sortuz gero, aldeek konpondu ezin dutena, administrazioarekiko auzietako epaitegi eskudunek aztertuko eta ebatziko dituzte, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- TOLOSAKO UDALAREN BETEBEHARRAK

Tolosako Udalak honako betebeharrak izango ditu bere gain:

1.- Egintza honetan, Tolosako Udalak baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzan gizarte-politiken gaineko eskumena duen sailari, hitzarmen honen laugarren azalpen-puntuari aipatu den finka modu partekatuan erabiltzeko, denbora jakin batez, Familia Bitartekaritzako Zerbitzuaren jardura eskaintzeko. Hasiera batean, astelehenetan erabiliko du finka —8:30etik 18:00etara—, baina, bi aldeak ados badaude, Jarraipen Batzordeak erabaki hori alda dezake.

2.- Lokalari emango zaion erabilera dela-eta, baimena doakoa izango da, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3.- Tolosako Udalak kudeatuko ditu baimenaren xede diren guneak. Horretarako, Tolosako Udalak berak ezarritako erabilera-neurriak erreparatuko zaie, eta, horrez gain, egokitzapenak egingo dira instalazio horiek zuzenean erabil ditzan gizarte-politiken gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, edo, hala badagokio, zerbitzuaren adjudikaziodun ateratzen diren erakundeek, sail horrek abiarazi edo izapidetu ditzakeen administrazio-espeditenteen ondorioz.

4.- Familia-bitartekaritzako zerbitzuarekin bateragarriak diren beste jardura batzuk egiteko baino ezingo da partekatu gune hori, hala nola premia bereziak dituzten familia edo adingabeei arreta emateko, bitartekaritza-akordioetan hitzartutako familia-terapiako zerbitzuak eskaintzeko eta abar. Zerbitzuak egokiak eta bateragarriak direla bermatze aldera, Tolosako Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak gainbegiratu du gune horretarako irispidea.

2022ko otsailaren 18a, ostirala



5.- Lokalaren erabileren gaineko ardura duten administrazioek beharrezko diren neurri guztiak hartuko dituzte pertsona fisikoak beren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez babestuta daudela bermatzeko.

LAUGARRENA.- EUSKO JAURLARITZAN GIZARTE-POLITIKEN GAINEKO ESKUMENA DUEN SAILAREN BETEBEHARRAK

1.- Eusko Jaurlaritzan gizarte-politiken gaineko eskumena duen sailak betebeharrak hauek hartzen ditu bere gain:

1. Lehenengo azalpen-zatian adierazitako familia-bitartekaritzako zerbitzua emango du baimenaren xede den lokalean.
2. Urtean gehienez ere 3.000,00 euro bideratuta, honako hauetan lagunduko du, besteak beste:
 - a. Lokala behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren hornidura- eta garbiketa-gastuak.
 - b. Guneen erabiltzailea den aldetik, berari dagokion kontserbazio- eta mantentze-lanen gastuak; bereziki, lokala erabiltzeko moduan egon dadin beharrezkoak diren konponketa arruntak egingo ditu.
 - c. Lokalaren erantzukizun zibileko aseguruan edukitzaileari dagokion prima ordainduko du, eta edukia aseguratu.
 - d. Gune horretan familia-bitartekaritzako zerbitzua emateko behar diren altzari espezifikoaren gastuak ordainduko ditu.
 - e. Lokala erabiltzearen ondorioz sor litekeen beste edozein gastu.
3. Hitzarmena amaitzen denean, lokala erabiltzeari utziko dio, eta Tolosako Udalaren eskura jarriko du berriro, erabilera-baimena eman zenean zegoen baldintza beretan.
4. Lokala erabiltzearen ondorioz sortutako gastuak ordainduko ditu, hitzarmen honen Jarraipen Batzordeak erabakitzen duen ehunekoan. Tolosako Udalak gastuen ziurtagiria aurkeztu ondoren egingo da ordainketa, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen.

BOSGARRENA.- HITZARMENARI JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO ARAUBIDEA

1.- Hitzarmen hau sinatzeko unean, Jarraipen eta Kontrol Batzorde bat sortuko da, eta honako ardura hauek izango ditu: hitzarmenean xedatutakoa koordinatzea, kontrolatzea, gainbegiratzea eta haren garapenaren berri ematea.

2.- Jarraipen Batzordea kide anitzeko organo mistoa izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz. Posible bada, erabakiak adostasunez hartuko dira; ezinezkoa bada, kideen gehiengoaren botoak erabakiko du, eta, hala ere berdinketa badago, batzordeburuaren boto erabakitzaila gailenduko da.

3.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea lau pertsonak osatuko dute. Hitzarmena sinatu ondoren, alde bakoitzak bi ordezkari izendatuko ditu.

4.- Batzordeburua urtez urte txandatuq da. Lehenengo urtean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkaria izango da batzordeburu, edo hark eskuordetzen duen pertsona, eta idazkari, berriz, familia-bitartekaritzako zerbitzuaren kudeaketaz arduratzen den zuzendaritzako teknikarien ordezkari bat.



5.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, batzordeburuak deituta, eta alde sinatzaileek eskatzen duten guztietan.

Jorratu beharreko gaiaren arabera, aholkulariak bertaratu ahal izango dira bileretara, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

6.- Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, nagusiki:

- a) Hitzarmen honen xede diren jarduketak eta betebeharrak garatu eta bete daitezten sustatzea. Hitzarmen honen xede diren jarduketak garatu daitezten sustatzea eta aldeek beren betebeharrak betetzen dituztela zaintzea.
- b) Sinatzaileen arteko harremanak erraztuko dituzten koordinazio-mekanismoak ezartzea.
- c) Egoki irizitako zabaltzeak eta hobekuntzak proposatzea, hitzarmen honen xedea hobeto bete dadin.
- d) Hitzarmenaren indarraldian zalantzarik, hutsunerik edo kontu arazotsurik sortuz gero, interpretatzea, eta, beharrezkoa bada, argitzea.
- e) Egiaztatzea lokala zein ehunekotan erabiltzen duten Tolosako Udalak eta Eusko Jaurlaritzan gizarte-politiken gaineko eskumena duen sailak, azken horri egokitu litzazkiokeen gastuen zenbatekoa zehazte aldera.
- f) Hitzarmen honen indarraldian beharrezko irizten zaien aldaketak proposatzea, alde sinatzaileek adostasunez erabakitzen badute, eta hitzarmenari eranskin gisa gehitzea hitzartzen diren aldaketak.

SEIGARRENA.- ELKARREKIKOTASUNA

Hau sinatzen duten bi aldeek hitzarmenaren dute hitzarmenarekin zerikusia duten gai guztietan elkarrekin eta aktiboki lankidetzan ariko direla eta duten informazio, ezagutza eta esperientzia guztia trukatu dutela, hitzarmenaren helburua ahalik eta ongien betetzeko eta baliabideak une bakoitzeko beharretara egokitzeke.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSIARAZTEA

Honako hauek izango dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

1. Bi aldeek horixe adostea.
2. Aldeek hitzarmen hau sinatzean beren gain hartutako betebeharrak ez betetzea, larriki eta behin eta berriro.
3. Dagokion ekitaldi ekonomikoan kreditu egoki eta nahikorik ez egotea.
4. Indarreko legerian aurreikusitako beste edozein suntsiarazte-arrazoi.
5. Aldeetako edozeinek hitzarmena suntsiaraztea, betiere bere borondatea modu frogagarrian eta gutxienez 3 hilabete lehenago jakinarazi badu.
6. Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/86 Errege Dekretuan eta Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko 33/2003 Legearen ezarritako arrazoiak.

ZORTZIGARRENA.- INDARRALDIA

1.- Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du. Epe hori amaitu aurretik, hitzarmen honen sinatzaileek

2022ko otsailaren 18a, ostirala



aho batez erabaki dezakete hitzarmena gehienez ere beste lau (4) urtez luzatzea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira: kreditu nahikoa eta egokia egotea, aldeek hartutako konpromisoak behar bezala betetzea eta Tolosako Udalak eraikinaren erabilera beste jardueraren bat gauzatzeko berreskuratu beharrik ez izatea.

2.- Hitzarmena suntsiaraziz gero, aldeek ezinbestean bete beharko dituzte beren gain hartutako betebeharrak suntsiarazpenaren datara arte, edo hartutako betebeharrak ondorenik ez duten arte.

Horrekin guztiarekin bat, sinatzaileek dituzten eskumenak baliatuta eta ados daudela jasota gera dadin, aldeek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, ondore bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 5ean,

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako
sailburua

Beatriz Artolazabal Albeniz

Tolosako Udaleko alkatea

Olatz Peón Ormazabal